


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Emozio handiko uneak

Espainiako Vueltatik itzuli berrikan, Mikel Iturriak lagunak, Urnieta herriaren eta andoaindarren omenaldi bana jaso du. / 3, 6



Urnieta jaietan

Ostegunean hasita, Sanmielak ospatuko dira. / Gehigarria

Jarduera fisikoa eta gizarte harremanak sendotzeko "Ibili Andoain" egitasmoa, berriro martxan / 3

Atletismoaren erabilera sustatzeko deialdia luzatu du Andoaingo Zumeatarrak / 5

Bigarren eskuko produktuen azoka, larunbat honetan Andoaingo Zumea plazan / 7

ZAHARRAK BERRITUZ

15. edizioa
Andoain

BIGARREN ESKUKO OBJEKTUEN AZOKA

Bizikletak, patinak, patineteak, arropa, jostailuak, liburuak, diskoak...

ANIMATU!

ZUMEA PLAZA
IRAILAK 28, LARUNBATA
10:00 - 14:00



Emanaldia eskaini zuten musikariek taldeko argazkia atera zuten Unanibian bertan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Ikusmin berezia piztu zuen kontzertuak, bere edukiagatik baitetik, eta paraje naturalean gauzatzekoa zelako bestetik. Gozatu ederra hartu zuten hurbildu ziren musika zaleek. Joxeramon Berrondo aurkezleak, kontzertuaren hasieran ikusleei honako mezua helarazi zien: "izan zaitezte bidelagun gurekin, Goikoplazan hasi eta Unanibian amaitzen den musika txangoa eginez". Sei abestiez osatutako erreperitorioak gidatu zuen ibilbide gozagarri hori: Andoain (Luis Fraca); Leizaran (J.M. Oiartzabal); Artetxepea (J.M. Oiartzabal); Antzizar (J.M. Oiartzabal); Goiburu (Pepe Andoain); eta Unanibia (J.M. Oiartzabal).

Azkenerako utzi zuten Unanibia abesti sortu berria, eta entzuleen gustukoa suertatu zen, amaieran jaso zituen txaloei kasu eginez gero. Hona zer dioen entzuleen artean abesteko ba-

Unanibia zubiari kantari

Eguraldia lagun, igande eguerdian Gora Kaletxiki Bandak Otietako parkean kontzertu berezia eskaini zuen. Bertan Unanibia abestia estreinatu zuten, Joxe Mari Oiartzabalek konposatu berri duena

natu zen letrak: "Andoaingo irudia / dugu guk Unanibia / sorgin bilkura bihurtuta / eza gutzen dute gure zubia / bi auzo elkar uztartuz / landuaz burdin harria / herritarrentzat da hau / barruko leku maitea".

Xabier Ucin klarinete joleak Andoain abestian bakarlarari gisa

jardun zuen; Joxeramon Berrondo Izagirre tronpeta jolea, berriz, Leizaran abestian nabarmendu zen. Esan daiteke 32 musikarien instrumentuen hotsek Leizaran ibaiaren hotsarekin eta txorien kantuekin bat egin zutela ia ordu bete iraun zuen kontzertuan zehar, ikusleen gozagarri.

Emanaldiaren ostean, hamaiketakoa

Kontzertuaren hondarrean, Gora Kaletxiki Bandako kideek Joxe Mari Oiartzabal zuzendariari eta bere emazte Maria Luisa Zuriarraini esker oneko oroigarria eman zieten, eta ondoren, Unanibia abestiaren partiturak

Bideo sorta webgunean

Emanaldian izan ez zenarentzat, Aiurri.eus webgunean ikusgai daude kontzertuko hainbat pieza. Besteak beste, Unanibia, Goiburu eta Leizaran kantuak. Bideoez gain, argazki-sorta ikusgai dago.

Maidar Lainez Andoaingo alkaterearen esku utzi zituzten. Kontzertuak kito egin ostean, bertaratutako guztiak hamaiketako goxo baten inguruan bildu ziren; Goiburu auzoko Sega gazte asanbladako hainbat kidek eta auzotarrek prestatu zuten hamaiketakoa.

Manu Izagirreri omenaldia egingo diote, larunbat honetan

Burdina taldeak ekitaldi sorta antolatu du, Basteron hasita. Galdu duten lagunari gorazarre egingo diote

Erredakzioa ANDOAIN

Burdina taldeko kide ekintzailea izan zen Manu Izagirre arkeologoa, eta oroimenean hartuko dute, antolatu diren hainbat ekitaldiren eskutik. Joan den uztailan zendu zen Izagirre, eta Bur-

dina taldekoek ez dute ahaztu nahi. Jakintza handiko gizona zen arkeologia gaietan, eta taldekideek maisutzat hartzen zuten. Bere izaera apala ere nabarmendu izan dute. Izagirre Aldundiko arkeologia saileko arduradun

ohia zen, eta azken urteetan Burdina taldean bolondres gisa aritu izan zen. Horrez gain, hainbat kultur ekimenen sorreran eta garapenean parte hartu zuen Izagirrek, besteak beste, Albaola Itsas Kultur Faktorian edota Igartubeiti baserri museoan.

Ekitaldi sorta larunbatean

09:30ean ekingo diote ekitaldi sortari. Basteroko hitzaldi aretoan, bera ezagutu zuten hainbat pertsonak eta Leizaran bailara inguruko hainbat udal ordezkari

hitza hartuko dute. Gogoan hartuko dute ez bakarrik bere nortasuna, baita ondare historikoren berreskurapenean erakutsi zuten kemena ere.

11:00etan Zumea plazan omenaldi ekitaldia burutuko da, Ortzaiakako karobira kalejiran abiatzeko. Goiburun kokatzen den karobian bertsoak, txalaparta hotsa, abestiak eta Izagirreren oroimenezko hitzak nagusituko dira. Azkenik, 14:30ean, bere adiskide eta lankideek bazkaria ospatuko dute sagardotegian.



Manu Izagirre. ALBAOLA

Parte hartze handiko ospakizuna Andoainen

"Mugitu Andoain!" ekimenak dozenaka herrikide mugiarazi zituen. Herriko kirol talde ezberdinen laguntzari esker, herrikideek jarduera ezberdinetan murgiltzeko aukera izan zuten: Mendizaletasuna, Nordic Walkinga, txirrindularitza, patinaia...

Xabier Lasa ANDOAIN

Larunbat goiza zen, jarduera fisikoei ekiteko asteko egun aproposa. Eta, urtetik urtera, jarduera berrietan murgiltzeko hitzorduan bilakatuko da. Hitzordua errotu ahala, egun hori baliatu ahal izango baita patinaian edota Nordic Walkingean trebatzeko. Askoren artean larunbatean egin zitezkeen bi kirol jarduera ziren. Biak ala biak, zaletu berriak bereganatzen ari dira. Badira beste batzuk klasikoak direnak, eta gurasoen eskutik proba egin daitezkeenak. Hala nola, mendizaletasuna, txirrindularitza edota atletismoa. "Mugitu Andoain!" ekimena



Andoaingo Txirrindulari Eskolak eta Udalak Iturria eta Garcia omendu zituzten. AIURRI

Udalak antolatu zuen, herriko kirol taldeen ezinbesteko parte hartzearekin. Goizeko 10:00tan hasi ziren jarduera gehienak, Goikoplazan. Eta goiz pasa Zumea plazan amaitu zen. Bertan Euskalduna Mendigoizale elkarte-kideek prestatutako hamaketakoaz gozatzeko aukera izan zen. Udalak amaiera ekitaldia bertan antolatu zuen, zeinean bi kirolari handi omentzeko aukera baliatu zuten. Hain justu, biak urnietarrak. Omentzeko argudioak, ordea, ez dira txikiak. Mikel Iturriaren kasuan, Andoaingo Txirrindulari Eskolan trebatu zen. Harentzat eskola izan zen. Iturriak pozarren eta esker onez jaso zituen txirrinduzaleen txaloak, eta antolazaleen hitzak eta opariak.

Nahikari Garcia Andoainen bizi da. Entrenamendua tarteko, sari banaketa ekitaldira hurbiltzea ezinezkoa izan zitzaion. Bere aitak ordezkatu zuen, omenaldi ekitaldian. Geroxeago, Nahikari Garcia Buruntzaldeko txapelketako dominak banatze-ira hurbildu zen Ubitartera. Jokalari gazteak pozarren zeuden.

Ibili Andoain ekimenaren ikasturte berria

Adinekoen artean jarduera fisikoa eta gizarte harremanak sendotzeko ekimenari berrekin diote

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo Udalak, herriko hainbat elkarteekin elkarlanean, ibilbide motzak, ertainak eta luzeagoak antolatzeari berrekin dio. Lehen hitzordua asteazkenean izan zen, 10:45ean hasita. Hurrengo asteetan ere hitzordu horri eutsiko diote. Goikoplazatik abiatuko dira herri barruko irteera guztiak. Aurreko ikasturtean bezala, ordu beteko iraupena izango dute ibilaldiek. Amaieran, parte-hartzaileek Bertxin jubilatuen elkartearen egoitzan hamaiketakoaz gozatzeko aukera edukiko dute.

Aurkezpen ekitaldian, Maider Lainez alkatea, Oscar Mendo kirol saileko zinegotzia eta Ixiar Olano eta Ana Sanz teknikariek gain, "Ibili Andoain" ekimenaren antolaketan parte hartuko duten zenbait gizarte eragile izan ziren: Andoaingo Caritaseko Onorio Martin, Pedro Martinez, Elias Diaz eta Virginia Hernandez, Hurria-Saharako Miren Erkizia, Santa Krutz Jubilatuen elkarte Eloki Artolzalabal, Pedro Guerrero eta Jose Luis Crego, eta, azkenik, Bertxin Jubilatuen elkarte Maite Iruretagoiena, Nemesio Zatarain eta Pedro Gracia.

Elkarte horiez gain, tarteka, Leizaran institutuak, Euskalduna mendigoizale taldeak eta Zuena emakumeen taldeak ere boluntario gisa parte hartuko dute. "Ibili Andoain" programak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Osakidetzaren laguntza jaso du.

"Ibili Andoain" ekimenaren abiapuntua, berez, "Mugitu Andoain" ospakizuna izan da. 70 parte-hartzailek Goikoplazan hasi eta Zumea plazan amaitu ziren hiru ibilbideetakoren batean parte hartu zuten.

Aurrerantzean, jarduera fisikorekin hitzordua izango dute. Asteazkenean, Goikoplazan.



Patinaia Zumea kaleaz jabetu zen, larunbat goizean. AIURRI



Txirrindulariak Trentxiki aldera abiatu ondoren Zumea plazara hurbildu ziren. AIURRI



Nordic Walking taldeko kideek ere "Mugitu Andoain" ekimenarekin bat egin zuten. AIURRI



"Ibili Andoain" asteazkenean abiatu zen, baina larunbatean ez zuten hutsik egin. AIURRI

IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Iraila

2019ko ekainean hasitako ziklo politiko berriaren ehungarren eguna ez da urruti ibiliko. Ikustear gaude jeltzaleek eta sozialistek osaturiko gobernu talde berriaren erronka eta asmo nagusiak zeintzu diren. Iraila badoa eta herrian "Kale giroan", "Mugitu Andoain", "Ibili Andoain" edota "Jabekuntza eskola" bezalako ekimenak antolatu dira. Guztiak aurreko urteetan abiatutako ekimenak, dena esatera. Egiten dutenaz gain, biko gobernuak zenbateraino eman dezakeen ikusi beharko da. Urrutira joan gabe, egun hauetan gauza deigarria gertatu baita. Gora Kaletxiki Bandak Leitxaran haranean Unanibia kantuaren estreinaldia egin du. Sare sozialetan, garia eta lastoa bereizten hasita, bi ateko gobernu dugula ondorioztatu dugu. Antza, kontzertuaren sustatzaileak emanaldia egin ahal izateko jeltzaleen ardura peko sailera hurbildu ziren. Euren eskaerak asetzen ez zirela ikusita, alkatetzako atea jo zuten. Hots, sozialistena. Eta horiek bai, horiek antolatzaileen eskaera batzuei behintzat bidea eman zieten. Otietara joateko garraioa ziurtatzeaz gain, ekimena publikoki babestu zuten. Igandean musikazaleek gozatu ederra hartu zuten. Hori bai, Udal ordezkariak bakarria sozialistena izan zen. Batzuren agerpena, eta gehiengoaren hutsunea, zer pentsatua ematen duen detailea da.

POSTONTZIA

Andoaingo skate park berria



ANDOAINGO UDALA GOBERNU TALDEA. 2019KO IRAILAREN 20AN:

Andoaingo Udalaren iritiz skatepark berriak, ezarri ondoreneko lehen aste hauetan, herritarren aldetik harrera ona izan du. Gipuzkoa mailan erreferente den instalazio berri bat dugu Andoainen, eta arrakasta hori behin-behinekoa izan ez dadila, eta denboran zehar iraun dezala espero dugu.

Egoki deritzogu gogoratzea nola aurreko legealdian proiektu honen exekuzioa onartu zenean, gaur egun gobernu arduratan dauden alderdiek ezezkioa bozkatu zuten. Ez ordea skate-

park proiektuarekin ados ez zirelako, diru partida hori herrian konpontzeko zeuden beste lehentasunetarako bideratzea hobesten zutelako baizik, horietako batzuk EHBilduren agintaldian konpondu gabe geratu ziren beharrak.

Bestalde, proiektuaren inguruan zalantza ezberdinak zeuden: skatepark-aren mantenuari buruzkoak, belardia eta jardinari buruzkoak, bai eta herrian puntu beltz berriak ez sortzeko beharrezko argiztapen egokiari buruzkoak, edota proiektuan

jasotzen ez ziren beste zerbitzuei buruzkoak.

Harridura sortzen du orain, eta ez orain arte, nola behar berriak identifikatu diren (WC, farolak, eserlekuak, gomendioen kartelak...), horiek guztiak Gobernu talde berriak beharrezkoak ikusten dituen neurriak, baina betiere proiektuaren lantze fasean kontuan hartu beharko zirenak, aurretiazko fase batetan.

Ez dakigu presaren eraginez, etekin politikoa ateratzeko edota aurreikuspen ezagatik, EH-

Bilduk orain oposiziotik, eta modu populistan erabiliaz, beharrezkotzat aldarrikatzen dituen neurri horiek zergatik ez ote ziren aurrez kontutan hartu.

Andoainek orain Skate ekipamendu bat dauka eta Udalak, gobernu taldeak, baieztatu nahi du planteatu diren neurri ezberdinak ezartzeko lanean dabilela, ekainaz geroztik. Gune berriko lotune batetan sortu den ur isuria konpondu bezain laster ekingo zaio ingurunearen egokitzapenari.

EH BILDU ANDOAIN. 2019KO IRAILAREN 24AN:

Gure proposamenei erantzunez, Udal Gobernuak skate parkaren inguruan inbertsioak egingo dituela esan du, eta erantzunarekin poztu egin garela adierazi nahi dugu. PSE-EE eta EAJ-PNVren Udal Gobernuak, berandu bada ere, Skate parkaren garrantziaz konturatzea ona dela deritzogu. Hala ere, ezarri nahi duguten erantzukizunarekin ez gaude ados. Skate park-a eraikitzeke sortu genuen partida pista egiteko zen, eta iturria, argiteria,

mahaiak-aulkiak eta panela jarrita egongo ziren iada, orain esan duten bezala ekainean hau dena martxan jartzen hasi izan balira. Denbora eta inbertsio handiagoa eskatzen duen gauza bakarria komuna da, eta orain arte egin dituzten partida berrien sorreran ez dute horrelakorik proposatu. EH Bildu udal gobernuan egon izan balitz, ez genuen argiteri, mahai-aulki, panel eta iturririk gabe inauguratuko, eta hori badakite, skate park-a diseinatzen

lagundu ziguten erabiltzaileek.

Skate park-a udal gobernuordezkariek jakin gabe ireki zela gogoratu nahi dugu, irekiera bezperan izan genuen zerbitzuetako batzordean guk egindako galderarekin agerian geratu zen bezala. Ondorioz, nola aurreratuko ziren bada, noiz irekiko zen ez bazekiten? Polemikatik haratago, ona da PSE-EEK eta EAJ-PNVk instalakuntza honen aldeko apostua egitea. Orain, ambizioz jokatu

eta skate parkaren inguruan ekintzak antolatzea falta da.

Udal Gobernuak gure proposamenen aurrean hartu duen jarrera ezkorrek harritzen gaitu. Oposizioaren funtzioa, proposamenak egitea dela ulertzen dugu, are gehiago, Andoaingo lehen indarra garenean. EH Bilduk kontrol oposizioa egingo du, baina proposamenak eginez eta jarrera eraikitzailearekin, PSE-EEK eta EAJ-PNVk azken zortzi urte hauetan egin ez bezala.

andoainDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Umietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Umietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ERROITZ** KULTUR MUNDUA

ALJATUAK: **nestor**

TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

Umietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

ELIZKO INJUNTATIA GOBERNUA VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizuntza Berlindusmerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: **Bitkarn**

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.

“Lasterka egiten hasteko ez da ezer behar”

EVA PELAEZ ANDOAINGO ZUMEATARRA ATLETISMO TALDEKO KIDEA

ATLETISMOA la bizitza guztia darama korrika, bere kabuz edo Zumeatarra atletismo taldean. Egun, belaunaldi berriei lasterka egitearen grina helarazten saiatzen da

Mikel Arberas ANDOAIN

Urteak daramatzazu lasterka, zeure kabuz, eta baita Zumeatarra atletismo taldean murgilduta ere...

Zumeatarran sartu nintzen, gaztetatik harreman estua eduki dudalako taldearekin. Andoaingo atletismo kirol elkartearen zenez, taldean sartzea erabaki nuen. Urte asko daramat korrikalari modura, bestalde, nire kasa.

Zein izan da egin duzun lasterketarik gogorrena?

Zegama-Aizkorriko maratonia izan da gogorrena. 42 kilometroko lasterketa da, mendian barrena egiten dena. Egun hartan, izugarriko hotza egin zuen eta, beraz, ezinezkoa izan zen bukatzea.

Oso gogorra izan zen, eguraldi kaskarra egin zuelako.

Uzteko erabakia adinarekin harrapatu ninduen eta, orduan, esan nion nire buruari ezin nuela; ondorioz, kortea pasa bezain laster lasterketa utzi nuen.

Etorkizunerako lasterketaren bat buruan duzu?

Ez ditut lasterketak buruan. Gaur egun, ez dut entrenatu ere egiten; soilik korri egiten dut edozein jarduera fisiko bezala, korri egitea gustuko dudalako, besterik gabe.

Zertarako zaizu baliagarria korrika aritzea?



Eva Pelaez lasterkariarekin elkartu gara atletismoari buruz hitz egiteko. AIURRI

Buruko pentsamenduak argitzen, bereziki. Gogo gutxirekin has naiteke lasterka, baina bidean aurrera egiten dudana heinean nire gauzatan pentsatzen hasten naiz, batik bat, arazoren bat baldin badaukat. Horri bueltak ematen dizkiot, eta kasu gehie-

ZUMEATARRAK GURASOEI ZUZENDURIKO BILERA IREKIA ANTOLATU DU, OSTIRAL HONETAN

netan burua argitzea lortzen dut.

Zertarako balio dezake atletismoak, haur eta gazteen mailan?

Nik uste dut, edozein kirol jarduera bezala, balio batzuk transmititzen dituela. Ahalegina eta lana egin behar da, eta, horrek,

ARRATSALDEKO 18:00TAN HASIKO DA, UBITARTE FUTBOL ZELAIKO BALIO ANITZEKO GELAN

diziplina eskatzen du. Egunerokotasunean beharrezkoak ditugun balio horiek korrika egitean lortzen dira, baina baita edozein kirol jardueretan ere.

Pixkanaka has zaitezke lasterka, eta egunero hobetzen joan; orduan konturatzen zara, saiatuz gero emaitza hobeak lor daitezkeela. Diziplina edukitzea lagungarria da, egunerokotasunean.

Gauzak egun batetik bestera lortu nahi izaten dira. Lasterketa ikus daiteke emaitzak lortzeko modu bezala, baina lana egin behar da.

Badago jendea lasterketetan parte hartu eta izugarriko markak egin nahi dituenak. Korrika hasi eta lehen urtean emaitza onak bilatzen dituztenak asko dira, eta gauzak ez dira horrela. Horregatik, gorputzak eta egunerokotasunak erakusten du emaitza onak lortzeko lana egin behar dela, eta nik uste dut balio horiek gaur egin ezinbestekoak direla.

Ostiral honetan gurasoei zuzendutako bilera informatiboa antolatu duzue. Ubitarteko erabilpen anitzeko gelan izango da. Zertan datza? Jarduerak nola planteatzen ditugun eta hauek dituzten helburrak informatzeko bilera izango da. Horrez gain, helburua gurasoek eduki ditzaketen zalantzak argitzea da.

Gure jarduerak ez daude lehiakortasunera bideratuta; haurrak jolasen bitartez korri egitearen sentazioak gozatzea nahi dugu. **Gaur egun, jende asko dago kirola ez egiteki kirolzale amorratu bilakatu direnak. Zer esango zenieke kirola egiten hasi nahi duten gazteei?** Korri egiten saiatzeko esango nieke, probatzeko. Hala ere, uler dezaket korri egitea ez dela kirol jarduera motibagarriena. Azken

finean, bakarrik aritzen zara korrika, baina zalantzan dagoenari probatzeko esango nioke.

Gaur egun aukera asko daude, esaterako mendian edo errepi-dean. Lehenengo oinez has daitezke eta pixkanaka lasterka hasi. Orduan ikusiko dute korrika ibiltzea zeinen lagungarria den.

Korri egiten hasi eta ezin dela gelditu. Badira horrelako kasuak ere.

Lasterka egiten hasteko ez da ezer behar. Edonork ditu galtza motzak, kirola egiteko jantzia eta zapatila pareta. Korriko egiten hasteko ez ditugu behar ehun euroko oinetakoak, ezta berrogeita hamar euroko arropa ere. Oso erraza da material egokia aurkitzea.

Edozein kirol edo jarduera fisikok harrapatu zaitzake. Endorfinak martxan jartzen direnean kirol guztiak dira erakargarriak. Hasieran gogorik gabe has zaitezkeen arren.

Zumeatarra atletismo taldean edonork parte har dezake?

Guztiek parte har dezakete. Arestian esan bezala, guk bideratzen ditugun jarduerak ez dira lehiakortasunean oinarritzen; hau da, hurrek korri egiten ondo pasatzea dugu xede.

Gainera, egiten ditugun jarduerak integratzaileak dira; horrekin zera esan nahi dut, gazte guztiek gure taldean dutela lekua. Atletismoak berezitasun bat du: banaka egin daitezkeen kirola da. Beraz, erlazionatzeko trebetasun gutxi dutenek pixkanaka abilezia falta hori gurekin landu dezakete. Hau da, talde-ekipo batean ez dira egongo, baina talde batean bai. Kirol jarduerekin giza taldean bizitzeko beharrezkoak diren balioak lantzen ditugu, jokoen eta ariketen bitartez. Oinarriak eraikitzen saiatzen gara.

Samurtasun handiko unea

FUTBOLA Buruntzaldeko futbol txapelketako sari banaketa ekitaldira luxuzko gonbidatuak hurbildu ziren: Nerea Eizagirre eta Nahikari Garcia Realeko jokalariek. Irudietan ikusten denez, Euskaldunako Nahikari Arrozpidek ezin izan zion emozioari eutsi. Parez pare baitzuen idoloa: Nahikari Garcia. Bi Nahikariaren arteko besarkada samurtasun handikoa izan zen.



Herri omenaldia Iturriari

TXIRRINDULARITZA Irailaren 20an herri omenaldia egin zioten urnietarrari. Vueltako balentria eta gero, UZEko kideek, lagunak, Udal ordezkariak, Andoaingo Txirrindulari Eskolakoek eta dozenaka herritarrek esker ona erakutsi zioten

Andoni Urbistondo URNIETA

Erotzeko moduko egunak daromatza Mikel Iturriak. Vueltako etapa irabazi zuenetik dozena bat elkarrizketa eta argazki saio eskaini ditu, eta aztoratu samar ibili da. Iturriak ostiralean zeukan azken hitzordua, baina denetan zailena. Ez baita erraza 200-300 lagun eta ezagunen aurrean tranpaldora igo eta protagonista zeu zarela barneratzea. Kantoi tabernan bizikleta hartu eta azkar egin zuen tranpaldorainoko bidea, Andoaingo eskolako eta UZEko lagunak gurpilekin inguratzen zutela. Txistularien agurraren ostean, Mikel Ibargoien Udaleko komunikazio arduradunak hainbat galdera egin zizkion. Jarraian, pantaila handian, Urdazubin lortu zuen garaipeneko irudiak erakutsi zizkion, Euskadi Irratiko Jon Altunaren narrazio zirrargariarekin. Omenaldiko unerik hunkigarriena izan zen. Plaza osoa emozioak jota, eta Iturria bera ere malkoei eusteko komekiekin. Bizikleta gainean pasa dituen miseria guztiak pasako zitzaizkion begi aurretik, eta eseri egin behar izan zuen, lasai arnasa hartzeko. Jon Mikel Mujika Andoaingo txirrindulari eskolako arduradunaren hitz goxoak entzun zituen, eta hasi berri diren guztientzat eredu dela adierazi zion. Unai Lizeaga entrenamendu lagun mina eta



Mikel Ibargoien eta Unai Lizeaga, eserita zegoen Mikel Iturriaren alboan. **AURRI**

UZE zikloturista elkarteko kidea ere igoarazi dute tranpaldora, ezustean, eta Iturria gozaten hasi zen neurrian urduritu zen Lizeaga, zer esan ez zekiela. Udal txistulari ordezkariak duten alderdi politikoetako zinegotziak igo ziren ondoren, Iturriari Urnietaren izena munduan barrena famatzen laguntzeagatik eskerrak ematera. Egape dantza taldeko bi kidek aureskua dantzatu zioten, eta halaxe bukatu zen omenaldia, herritarren txalo artean. Tranpaldotik jaitsita denbora luze egin zuen zaletuak agurtzen. Eta txikienekin argazkiak ateratzen eta sinadurak ematen minutuak eman zituen.

Mikel Iturria Urnietako hainbat umeren eredu, ikur bilakatu baita, Nahikari Garcia futbolariarekin maiatzean gertatu bezala. Urdazubi aurreko Mikel Iturria joan zen, Mikel Iturria berri bat daukagu. Baina argazkiak eta sinadurak eskatzen zizkieten bitartean, garaipen horrek bere bizitza aldatu ez balu bezalakoa izango da ziklistaren egunerokoa. Bizikleta maitatuz, profesional saiatua izanez, sakrifizio asko eginez, baina beti mutil natural eta zintzoa izanez. Herrikide eta lagunak berotasunarekin mila foku eta kamerekin baino errazago hunkitzen den mutila da Mikel Iturria.

Lehen harrera, lagunena

Asteazken arratsaldean, San Juan plazan zirenek, ezustekoa jaso zuten. Hantxe elkartu baitziren Mikel Iturriaren adiskideak, lagunari omenalditxo eskaini asmoz. Bertsua abestu, agurra dantzatu eta txapela jantzi zioten. Omenaldiz beteriko astearen hasiera izan zen, hurrengo egunetan Urnietako herriak eta andoaindarrek omendu baitzuten.



ITURRIAREN LAGUNAK

KARTELDEGIA

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA	
SD Eibar-Euskalduna	0-1

SAILKAPENA

1 Anaitasuna	6 puntu
2 Touring	6 puntu
3 Euskalduna	6 puntu

NESKAK, 0. ERREGIONALA

Urnietta-Hernani	1-1
------------------	-----

SAILKAPENA

1 Tolosa	3 puntu
6 Urnietta	1 puntu

ERREGIONAL PREFERENTE

Hondarribia-Urnietta	1-2
----------------------	-----

SAILKAPENA

1 Allerru	6 puntu
10 Urnietta	3 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

20:30 Urnietta-A.Mundarro / Ost, 27

1ª ERREGIONAL MAILA

Euskalduna-Lazkao	2-2
-------------------	-----

SAILKAPENA

1 Anaitasuna	6 puntu
3 Euskalduna	4 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Euskalduna-Ordizia / Lar, 28

PREFERENTE NESKAK

Euskalduna-Santo Tomas Lizeoa	1-0
-------------------------------	-----

SAILKAPENA

1 Añorga	3 puntu
3 Euskalduna	3 puntu

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

Euskalduna-A.Mundarro	3-0
-----------------------	-----

SAILKAPENA

1 Euskalduna	6 puntu
2 Touring	6 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Euskalduna-Billabona / Lar, 28

JUBENILEN 1ª MAILA

Urnietta-Ostadar	0-2
Euskalduna-Danena	1-2

SAILKAPENA

1 Danena	6 puntu
4 Urnietta	3 puntu
7 Euskalduna	0 puntu

KADETE, A MAILA

Euskalduna-Herrera "D"	4-0
Lengokoak "B"-Urnietta	4-2

SAILKAPENA

1 Euskalduna	6 puntu
2 Hernani	6 puntu
4 Urnietta	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

09:30 Euskalduna-Hernani / Lar, 28

KADETE, B MAILA

Urnietta-Antigua Luberri	1-6
Orioko-Euskalduna	2-0

SAILKAPENA

1 Orioko	6 puntu
5 Euskalduna	0 puntu
7 Urnietta	0 puntu

KADETE NESKAK

Urnietta-Euskalduna	0-3
---------------------	-----

SAILKAPENA

3 Euskalduna	3 puntu
6 Urnietta	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

09:15 Euskalduna-Martutene / Lar, 28

ESKUBALOIA

EUSKADI, SENIOR MUTILAK

Amzas Urdaneta-Urnietta	28-23
-------------------------	-------

SAILKAPENA

1 Deusto Loyola	2 puntu
13 Urnietta	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

20:30 Urnietta-Aloña Mendi / Ost, 27

GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Leizaran-Aloña Mendi / Lar, 28

GIPUZKOA, JUBENIL MUTILAK

Donibane-Urnietta	26-39
-------------------	-------

SAILKAPENA

1 Urnietta	2 puntu
4 Leizaran	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Urnietta-Egia 3 / Ost, 27

11:15 Leizaran-Tolosa "B" / Ig, 29

GIPUZKOA, JUBENIL NESKAK

Ordizia-Urnietta	18-31
Leizaran-Astigarraga	29-12

SAILKAPENA

1 Eibar	2 puntu
2 Urnietta	2 puntu
2 Leizaran	2 puntu

GIPUZKOA, KADETE MUTILAK

Leizaran-Amenabar	31-21
Aloña Mendi-Urnietta	34-26

SAILKAPENA

1 Usurbil	2 puntu
2 Leizaran	2 puntu
6 Urnietta	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

19:00 Urnietta-Arrasate / Ost, 27

GIPUZKOA, KADETE NESKAK

Leizaran-Pulpo EK	12-20
Egia 1-Urnietta	19-20

SAILKAPENA

1 Eibar	2 puntu
3 Urnietta	2 puntu
6 Leizaran	0 puntu

ARETO FUTBOLA

KOPA, 1. JARDUNALDIA

Ventanas Isu-Euskalduna	1-10
-------------------------	------

LIGA, 1. JARDUNALDIA

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Egarrri-Euskalduna / Lar, 28

Caritas taldearen deia

Ikasturte berria hastearrekin batera, Andoingo Caritas elkarteak 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutilentzat errefortzu eta laguntza gelak abian jartzeko asmoa dauka. Aste honetan bertan bilera egin dute, parte hartu nahi duten bolondresekin. Ekimenarekin bat egin nahi duenak badu oraindik izena emateko aukera.

Urki dantza taldea

Euskal dantzen ikastaroa hastear da Andoainen Olagain auzoko egoitzan. Asteartero elkartuko dira, urriaren 15ean hasi eta datorren maiatzaren 26ra arte.

- Lehenengo maila: 19:00.
- Maila aurreratua: 20:00.
- Izena ematea: urriaren 10a arte.
- Ikastaroari buruzko informazioa: 629 375 147.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 28 eta igandea 29
PAJARES: Zumea kalea, 20
943 59 26 29 Andoain.

URNIETA

Larunbata 28 eta igandea 29
AIZPURI: Latxunbe Berri, 11.
943 336 077 Hernani.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 26

URNIETA Matrikulazioa

Guraso eskolan izena emateko epea zabalik. 0-16 urte bitarteko haur eta nerabeen gurasoentzat aproposa. izena emateko epea urriaren 4an amaituko da.

Informazioa: Urnieta.eus.

URNIETA Sanmielak

Jaien hasiera. Egitarau osoa erdiko orrialdeetan.

Gehigarri berezia.

OSTIRALA 27

URNIETA Tailerra

Irailaren 27an amaituko da antzerki tailerrean izena emateko epea.

Ikasturtearen hasiera: Urriak 4.

URNIETA Ikastaroak

Irailaren 27an amaituko da Lekaioko izena emateko epea: eskulanak, joskintza, zur taila, argazkilaritza, marrazketa eta pintura...

Ikasturtearen hasiera: Urriak 17.

ASTELEHENA 30

DONOSTIA Bilkura

Pentsiodunen asteleheneroko hitzordua Donostian egiteko deialdia luzatu dute.

12:00, Alderdi Eder.

ASTEARTEA 1

URNIETA Ikastaroak



Hamabosgarren ediziora iritsi da bigarren eskuko produktuen azoka. AIURRI

ANDOAIN Bigarren eskuko azoka Zumea plazan

Liburuak, entziklopediak, jostailuak, bizikletak, patineteak, arropa, diskoak... Norberarentzat erabilgarria ez den materiala besteentzat baliagarria izan daiteke. Produktu horien irauarazpena eta kontsumo

arduratsua sustatzeko sortu zen azoka. Orduko balio horiek indar bera dute, gaur egun. Aurreko urteetan bezalaxe, salerosketarako hainbat postu ipiniko dituzte Zumea plazan.
10:00-14:00. Irailak 28, larunbata.

Sarobeko ikastaroen hasiera: Yoga, pilates, gimnasia hipopresiboa, bizkal eskola, gatze funkya.

Ikasturtearen hasiera: Urriak 1.

OSTIRALA 4

ANDOAIN Ikuskizuna

L izeneko dantza, poesia eta musika ikuskizuna, Lauaxeta eta Lorca uztartuz. Euskaraz eta gaztelaniaz. Jon Maia bertsolariaren ideiatik abiatuta.
21:30, Bastero. 12 euro.

LARUNBATA 5


ANDOAIN Erakusketa

"Eremuak-Harriak", erakusketa berriaren irekiera.
18:00, erakusketa gela. Bastero.

ANDOAIN Kontzertua

Robyn Hitchcock eta Joseba Irazoki eta lagunak tadeak zuzenean arituko dira. Hitchcock britainiarra ibilbide luzeko abeslari eta sortzailea da.
21:30, Bastero. 12 euro.

ZINEMA



ANDOAIN

ZINEMA

Agur Etxebeste!

Ostirala, 27:
22:00.
Larunbata, 28:
19:30, 22:00.

Igandea, 29:
19:30.

Astelehena, 30:
19:30, 22:00.

Mascotas 2

Lar, 28: 17:00.
Ig, 29: 17:00.



SINOPSISIA



Agur Etxebeste!

Zuz.: Asier Altuna, Telmo Esnal. **Gidoia:** Asier Altuna, Telmo Esnal, Nagore Aranburu. **Aktoreak:** Ramon Agirre, Elena Irueta, Iban Garate,... **Herr.:** EH (2019). **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 90 min.

Euskal komediaren estreinaldia

Patrizio Etxebestek osasun arazoak ditu eta alkatetza uztea beste erremediorik ez du. Ordezko bezala bere emaztea Maria Luisa izatea erabakitzen du. Erabakia ontzat emateaz gain, Maria Luisak ardura berria oso serio hartzen du. Hainbestera, alkatetza hankaz gora jartzea

erabaki duela. Horixe da filmaz adierazi daitekeena, "Aupa Etxebeste!" filmaren ondoren datorrena. Urte asko pasa dira takillako salmenta markak hautsi zituen euskal estreinaldi hartaz. Urteak igarota, filmaren bigarren atala osatzeko lantalde berdina elkartu da. Ikusmina handia da.

Jabekuntza eskola martxan

Ikasturtea hastearrekin batera, Andoingo Udalak Jabekuntza eskolaren edizio berria martxan jarri du. Hauxek dira hastear diren ikastaroak:

- Orduetgia: 16:30-18:30.
- Dinamizatzailea: Klara Worlfram.
- Tokia: Urigain.
- Hizkuntza: Elebitan.

Sendabelarrak

Urriaren 4an hasita, azaroaren 8ra bitarte astean behin elkartuko dira.

- Orduetgia: 18:30-20:30.
- Irakaslea: Kris Lizarraga.
- Tokia: Urigain.
- Hizkuntza: Gaztelania.

Mindfulness

Urriaren 7an hasita, bi hilabetez astean behin elkartuko dira.

Emasolas

Urriaren 7an hasita, hiru hitzordu ezberdin. Lehen hitzordua: "Zertaz ari gara hitz egiten boterea eta jabekuntza aipatzen ditugunean?"

- Orduetgia: 18:30-20:30.
- Irakaslea: Bea Zalakain.
- Tokia: Urigain.
- Hizkuntza: Gaztelania.

Informazioa:

- Urigain.



Asteleneheneko bilkura. AIURRI

Astlehenean Donostiara joateko deialdia

Erredakzioa ANDOAIN

Pentsio duinen aldeko asteleneheneko elkarretaratzea Goikoplazan izan ohi da. Irailaren 30eko hitzordua, ordea, ez da Goikoplazan izango, baizik eta Donostian Alderdi Ederren. Helduen Eguna antolatu dute bertan Donostialdeko eta Oarsoaldeko Pentsiodunen Batzarrak, "Helduak borrokan bizitza duinaren alde" lelopean. 12:00tan hasiko da.

1974an jaiotako bazkarian izena emateko epea zabalik

Erredakzioa ANDOAIN

1974. urtean jaiotako 45 urteko kinto bazkaria datorren urriaren 26an egingo dute. Interesatuak izena eman behar dute, datorren urriaren 12a baino lehen.

Deitzaileek izen ematea egiteko kontu korrante bat ireki dute, eta bertan 50 euroko diru sarreara egin beharko da.

Kontu korrantearen Zenbakia: ES17- 3035 0026 23 0261136236. Izen-abizenak zehaztu behar dira.

Informazio gehiago jaso nahi duenak e-postaz galdetuz egin dezake: 1974andoain@gmail.com.

Bazkaria urriaren 12an izango da, eta bazkaltzeko hitzordua Zumea plazan ipini dute, eguerdiko 12:00tan hasita.

Sustatzaileek duela 5 urteko hitzordua errepikatze gogoz daude.

AZKENA

Merkatarien gehiengoak bat egin zueneko

"Nire aukera Andoain!" kanpaina azken urteotan babes handien lortu duen merkataritzaren aldeko ekimena izan da. Ia Andoaingo merkatalgune ia guztiek bat egin zuten, erakusleihoak kolore biziz betez



Gamer, Kale Nagusian. AIURRI



Xare oinetakoak, Elizondo plazan. AIURRI



Amantegi, Kale Nagusian. AIURRI



Adats ileapaindegia, Belabi kalean. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

"Nire aukera Andoain!" ekimena eta gero, Aiurri astekariak Sandra Viera Salkin elkarteko dinamizatzailearen balorazioa jaso du.

Ostiralean erakusleihoak afitxez eta globoz apainduta agertu ziren. Zer nolako balorazioa egiten duzu?

Parte hartze handiarekin pozik nago, baina gure kanpainaren zabalkundea ikusi zena baino handiagoa izan zen. Denek bat egin izan balute... Zeren eta zenbait tokietara kanpainarekin bat egiteko materiala eraman genuen, baina ez zuten ipini.

Egia da ere, zoritxarrez, auzune batera iristea ezinezkoa izan zitzaigula. Gutxi baikara, eta gure ahalmena mugatua da. Orokorrean, Salkineko bazkideengatik bereziki, pozik nago. Lastima da Salkineko kide ez diren batzuri kartela eta globoak eramatea, eta eurek erakusleihoan ez ipintzea. Pena ematen dit horrek.

Aiurrik webgunean ipini zituen argazkiak ikusita, 70 dira gutxienez kanpainarekin bat egin dutenak.

Parte hartzea handia izan da, eta kendeak zoriondu egin gaitu. Pozik dago, eta ekimen hauen

benetako helburua zein den argi utzi nahi dut: Kanpainaren helburua ez da salmentak areagotzea, herrikideen kontzientzian eragitea baizik. Merkataritzaren garrantziaz ohartarazteko baliagarria izan da. Herriari bizitza ematea polita da, eta horretarako merkatariek ezinbestekoak dira".

Dendaz dena ibiltzen naiz, eta Salkinekoa izan edo ez izan, gehienek horrelako ekimenak gogoko izaten dituzte. Azken batean, denek bat egiten dute. **Etorkizunari begira zein asmo dituzue?**

Ekimenak baditugu buruan, baina merkatariekin hitz egin arte ezin dut ezer aurreratu. Eguberrietako kanpaina hor dago, eta urrirako beste ekimen bat martxan jartzea espero dugu. Garrantzitsua herriari bizitza ematea da, eta herritarrok bertan geratzea.

"MERKATARITZAREN GARRANTZIAZ OHARTARAZTEKO BALIAGARRIA IZAN DA KANPAINA"

Aiurri.eus gunean

Egunean bertan Aiurrik erakusleihoen argazkiak ipini zituen sarean. 72 merkatalgune ezberdinen argazkiak ikus zitezkeen, webgunean argazki-bilduman. Eta oraindik batzuk falta ziren.

SANMIELAK 2019 URNIETA

JAIARI EKITEKO GOGOZ



Joan zen larunbatean, Egape dantza taldeak "Formak" ikuskizuna eskaini zuen. Edu Muruamendiarazen gidaritzapean, hauxe parte hartu zuen dantzarien zerrenda: Ainara Etxeberria, Eider Lizaso, Elaia Marruedo, Eneritz Usarralde, Ihintza Manterola, Irati Azurmendi, Irati Etxeberria, Laida Egaña, Leyre Holgado, Maren Arozamena, Nahia Perurena, Nerea Del Castillo, Nora Muro, Uxue Cano, Aitzol Otegi, Aloña de Torres, Ane Pagola, Arene Iginitz, Arixen Unanue, Elena Gomez, Erika Santamaría, Gariñe Serrano, Garoa Cisneros, Irati Exposito, Izaro Isasti, June Herrera, Laida del Sol, Leire Alonso, Maialen Kortajarena, Nahia Ibarguren, Naia Vilches, Naroa Oilo, Naroa Urbizu, Nerea García, Nora Vega, Ainara Isasti, Aintzane Elosegi, Amaia Mellado, Ane Arruti, Jon Tolosa, June García, Maria Muro, Saioa Gonzalez de San Pedro, Unai Iraola. EGAPEDT





Emanaldi ikusgarria eskaini zuten Egapeko kideek. Hauek aritu ziren gaueko protagonista nagusiak: Leire Erasun, Nahikari Sanchez, Garazi Urdangarin, Amets Orbegozo, Maddi Ibañez, Ane Etxeberria, Naia Lusarreta, Irati Iginitz, Anne Elustondo, Irati De Torres, Karmele Lekuona, Ainhoa Arruti, Uxue Sanchez, Ioritz Lizeaga, Leire Garcia. AIURRI

Soinuen begiradak suite

360° ikuskizunaren osagarria izan zen "Soinuak Begiradak" ikuskizunaren aurrerapena. Antton Jauregi txistulariak, Anabas taldearen izenean, udazken honetan taularatuko duten ikuskizun berriaren aurkezpena egin zuen. Hiru pieza eskaini zituzten, Urnietako toki izenekin loturikoak. Hiru piezetatik bitan Egape dantza taldeko kideen parte hartzea izan zuten. Dantzarien bigarren saiorako kamiseta aldatu, eta guztiak zuriz agertu ziren. Saroben eskainiko duten ikuskizun berriaren aurrerapena eta gero, musikariak eta dantzariak ikuslegoa agurtzeko elkartu ziren. Txalo zaparrada jaso zuten, denek ere.

Ez diezaiotela dantzatzeari utzi

Edu Muruamendiarazen zuzendaritzapean, adinean gora doazen Urnietako dantzari gazteek ikuskizun ederrak eskaintzen jarraitzen dute. 360° ikuskizuna dantza garaikidearen eta tradizionalaren arteko nahasketaren erakustaldi berria izan zen

Jon Ander Ubeda URNIETA

Saio bakoitza erronka berria da, eta gaur gaurkoz ez dute sapairik jo. Ez diezaiotela

dantzatzeari utzi, herrikideek eta dantzazaleek biziki eskertuko dietelako. Ostiral gauean, San Juan plazan ipini zuten alfombra

urdinaren lau ertzak ikuslezt bete ziren. Denek ere bazekiten ikuskizunaz gozatuko zutela, Egapeko gazteek ez baitute hutsik

egiten. Antzerkigintzari keinu txikiak eginez, eta musikaren aukeraketa zaindua baliatuz, erakustaldi berria egin zuten. Maletak eskuan, bidaia irudikatu zuten *Oi Ama Euskal Herri* kantuaren bidez. Munduan barrena egindako fantasiazko ibilaldia izan zen, berrikuntza eta tradizioa uztartuz.



Naia Lusarreta, Bizkarrean, Nahikari Garcia, Makurtuta, Karmele Lekuona.



Ioritz Lizeaga, Leire Erasun, Garazi Urdangarin eta Maddi Ibañez. AIURRI



Ane Etxeberria. AIURRI



Urnietako mendi lasterketa txikia beti bezain ikusgarria da. AIURRI



Helduek ere arratsalde bikaina igaro zuten. AIURRI



Haurren lasterketa txikiaren irteera. AIURRI

Elkartasuna helburu

Super H elkarteak minbizia duten haurren egoerarekin sentsibilizazio berezia erakutsi du. Hori izan zen elkarte bezala lanean hasteko arrazoia, eta geroztik ez dute hutsik egin. Larunbatean ospakizun ederra antolatu duten, beti ere elkartasun helburu izanik

Jon Ander Ubeda URNIETA

Antolatzaileek gogotik egin zuten lan, goizean goizetik. San Juan plazan arratsalderako azpiegitu-

ra osoa prestatzen zuten bitartean, frontoi aldera joz dagoen plaza-txoan marrazki lehiaketa antolatu zuten. Arratsaldean, askoren

artean, hurrek mendi lasterketa txikiak gozatu ahal izan zuten. Ospakizun ederra, zeinean ikerkuntzarako 5000 euro bildu zuten.



Tailerrak, txokolatea... aspertzeko tarterik ez zen izan arratsalde osoan. AIURRI



URNIETAKO UDALA

Pintura lehiaketako irabazleak

Joan zen igandean pintura lehiaketaren edizio berria egin zuten, eta hauek dira nabarmendu ziren lanak:
Haurrak:
1. saria: Alain Ugarte Begiristain.

Helduak:
1. saria: Ricardo Azkargorta Zelaia.
2. saria: Ramon Martinez Lluch.
3. lehen urnietarra: German Calparsoro Caballero.



Goizean haur margo lehiaketa antolatu zuten. AIURRI

SANMIELAK URNIETAN 2019

IRAILAK 26

OSTEGUNA

17:00 Bingoa Denda Berrin.

18:00 Haur jaioberriei zapia jarriko diete, kontzejupean.

18:30 Erraldi eta buruhandien kalejira, Plazido Muxika Plazatik hasita. Bosko Anitz Txarangarekin batera.

19:30 Kanpai jotzea eta Mielaren jaitsiera, plazan.

19:30 Txupinazoa.

20:00 Txosnen irekiera.

20:30 Tortilla lehiaketa txosnagunean. Tiketak 2 eurotan, Guria tabernan. Gau tematikoa Txosnetan: Ibiza. D.J PZ Feat. Albabarruna txosnatan.

IRAILAK 27

OSTIRALA

17:00-19:00 Urnieta Selfie! proba-jolasa. Zubitxo Plazatik hasita, 11-16 urtekoentzat.

16:30 Petanka eta mahai jolasak Denda Berrin.

17:00 Eskubaloi jolasak haurrentzat, plazan.

19:00 Kantazaun kantujira, plazan hasita.

21:00-23:00 Oilasko-afaria txosnagunean. Tiketak Gurian salgai.

23:00-00:30 Umorezko antzerki ikuskizuna "Solo Fabiololo glam slam" plazan. Euriarekin Saroben.

23:30 Mc Onak, Zopilotes Txirriaus eta Iruñerria Jamaika Clash zuzenean txosnatan.

IRAILAK 28

LARUNBATA

07:00 Jokoak plazan.

10:00 Kalejira txistulariekin.

11:00-14:00 Pil-pil erarako bakailao lehiaketa eta Maxter-Txef txiki lehiaketa ermita aurrean. 13:00etan sari banaketa eta dastaketa.

12:00 Parrillada urnietar guztientzat, Denda Berrin.

12:00 Kuadrilen kalejiraren irteera Pasai txarangarekin, Plazido Muxika plazatik.



Ostegunean, iluntze aldera, plaza jendez beteko da Mielari ongietorria emateko. AIURRI

12:00 Poxta Zaharren poteoa, Guriatik aterata.

14:00 Paella jatea plazan.

14:30 Txosnagunean bazkari herrikoia.

14:30 Emakume kuadrillaren bazkaria Gurian.

16:00 Karabina tiraketa Bolatokian, 8-14 urtekoentzat.

16:30-18:00 Holi Fest! Plazido Muxika plazan 11-16 urteko gazteentzat.

17:00-21:00 Kuadrilen irteera txarangarekin, plazatik.

17:00-20:30 Zutik elektrotxaranga, irteera txosnagunetik.

18:00 Parkour, Trick Kicks eta Barbacoa Fest! Ikuskizuna. Plazan. Euriarekin, Egape ikastolako jolastoki estalian.

18:30 Martin Mujika Pilota jaialdia. Erremontean: Imanol Ansa II-Josu Arruarte / Ander Goikoetxea-Ibon Zaldua. Esku-pilotan, afizionatuak: Santxo-Odriozola / Goñi III-Lizeaga.

19:00 Urdanbor, Plazido Muxika plazatik abiatuta.

19:15 Urdanbor danborradaren saioa elizan.

22:00 Bertsoak plazan: Beñat Gaztelumendi, Miren Artetxe, Ane Labaka, Unai Mendizabal. Gai-jartzaile: Amaia Agirre.

24:00 Urdanbor.

24:00 J-tiro, Ziribulio, Bad Sound System txosnagunean.

24:00-02:00 Musika plazan, London Orkestrarekin.

02:30-04:00 DJ musika.

IRAILAK 29

IGANDEA

07:00 Txaranga Idiazabal kalean.

09:30 Diana Txanbolinekin.

10:30-13:30 Perurekin GKEaren postua plazan.

11:00 Hurren danborraden hasiera.

11:00 Meza elizan. Korporazioa Udaletxetik elizara.

12:00 Egapedanbor eta Magale haur danborraden elkargunea plazan.

12:30 Udalaren omenaldia plazan, Zaldundegi jatetxeko emakumeei.

13:00 Haur danborraden ibilbidea, plazatik Idiazabal kalera.

13:00 Txanbolinen emanaldia eta ikasleen dantza saioa plazan.

Sanmielak 2019 Aiurri.eus webgunean:

**Protagonistak,
egitarau osoa,
argazkiak, bideoak...**

- 14:00** Denda Berriren bazkaria.
- 17:30** Jule antzerkia Zubitxo plazan.
- 18:00** Kontzertu akustikoak txosnagunean.
- 18:00** Agirren taldea Plazido Muxika plazan.
- 20:00** Dantza-soka herrikoiairen X. urteurrena plazan.
- 20:30** Mariachi Zacatecas plazan.
- 20:30** Txosnen itxiera.

IRAILAK 30

ASTELEHENA

Oharra

San Miguel Urnietako egunaren ospakizuna dela eta, astelehenean Udala eta Bertan bulegoak arreta zerbitzurako itxita izango dira.

- 09:30** Diana Txanbolin bandarekin.



Mariachi Zacatecas taldea igande iluntzean zuzenean arituko da, plazan. AIURRI

10:30 Alkate Txikien izendapena Udaletxean. Egun osoan agintari lanetan arituko den bikotea honakoa da: Carla Montero Corbelle eta Nikolas Agudo Felipe.

10:30 Belauntxingoa haur eta gaztetxoan emanaldia Egape dantza taldearen eskutik.

11:00-14:00 Haur parkea Egapeko jolastokian.

16:30-18:30 Haur parkea Egapeko jolastokian.

17:00 Erraldoi eta Buruhandien kalejira, San Juan plazatik hasita.

17:00 Kontzejupeko esku-pilota txapelketako finala.

18:00 Egapexou antzerki emanaldia Etxeberri plazan: "Zimitorioko Sorginak".

19:00 Xaibor! diskofesta haur eta gazteentzat plazan.

20:00 Alkate txikien botere uztea udaletxean.

20:30 Mielari agurra, zezen suzkoa eta azken traka.

URRIAK 5

LARUNBATA

09:00-17:00 Lehen Petanka lehiaketa.

09:00-17:00 SuperH futbol festa Burnibide Parkean.

18:00 Agirren taldea Plazido Muxika plazan.

23:00 Mind Trap eta Lord Witch musika taldeak zuzenean plazan.

URRIAK 6

IGANDEA

09:00-13:00 Auto klasikoak.

09:30 Bolo txapelketa.

10:00 Diana txanbolin bandarekin.

10:00 Jalgi plazara Aurrera Gure Ametsaren eskutik.

11:00 Meza eta Ezpata-dantza.

12:00 Ingurutxoa.

12:00 Munduko ardoak plazan.

17:00 Herri kirol erakustaldia.

18:00 Agirren taldea Plazido Muxika plazan.

18:00 Txekor jatea eta sagardoa.

18:30 Willy Etxeberria memorialea zesta punta jaialdia.

19:00-20:30 Xabi Solano zuzenean.

20:30 Azken traka.

Gaztelo
GOZOTEGI ARTISAU
BONBONERIA

Gora Sanmielak!

Errekalde kalea, 14 - 20.130 URNIETA - 943 008 406
Zarautz ibilbidea, 76 - 20.018 DONOSTIA - 943 226 584

HOTEL HK10
HOTELA

HK10 hotelak Sanmiel jai zoriontsuak opa dizkizue

Elorri gurera Parrilla menu berezia dastatzera

Erreserbak: 943 33 73 57 edo
info@hotelk10.com

MUAZPI

Harategia *Ondo pasa Jaletan!*

- Bertako haragia
- Jaki prestatuak
- Delikatessen
- Ardotegia

943 008 304
665 737 871

Errekalde, 14. URNIETA
muazpi@gmail.com

CERAMICAS NOGALES S.L.
URNIETA

Ondo pasa Sanmieletan

- Sukaldeko altzariak
- Aluminio aroztegia
- Egur aroztegia
- Elektrizitatea
- Igeltzua
- Hargintza
- Iturgintza
- Pintura

Errekalde, 10
20130 Urnieta
Tel./Faxa: 943 009 284
Tel.: 943 550 624
ceramicasnogales@ceramicasnogales.com



Garazi Ramirez eta Idoia Gorroño Aurrera Gure Ametsa dantza taldeko kideak. AIURRI

Aurrera Gure Ametsaren urteurrena

Urte berezia bizitzen ari dira Aurrera Gure Ametsa dantza taldeko kideak. Hogei urte bete ditu taldeak eta, ohiko ekitaldiez gain, beste zenbait gehiago antolatu dituzte. Urte borobila osatzeko gogoz daude

Erredakzioa URNIETA

Idoia Gorroño Belaunzaran taldeko Batzorde kideak eta Garazi Ramirez Manero dantzariak eman dizkigute azalpenak ospakizunaren inguruan.

Urriaren 6an, Errosarioaren Amaren Ohorezko jai egunari begira, hainbat ekitaldi antolatu duzue.

Idoia Gorroño. XVIII. Jalgi Plazara festa, bazkari herrikoa eta Xabier Solanoren kontzertua osatu ditugu, Udalak antolatzen

dituen gainerako ekitaldiekin bat eginez. Horrela, goizean, 10:00etan beste herrietako dantza taldeei harrera eskainiko zaie, eta guztiak kalejiran abiatuko gara 10:30etatik aurrera; ziurtatuta dago Biasteri, Tolosa eta Hernaniko dantza taldeen presentzia. Ondoren San Juan plazan bildu berriro, eta Ingurutxoari eta plaza dantzei ekingo diogu, 12:00etatik aurrera. Eta bien bitartean, San Migel

elizan egingo den mezan, gure taldeko hiru dantzarik ezpata-dantza dantzatuko dute; aurreneko aldia izango da ohitura hori egiten dela Urnietan, eta etorkizunean segida izatea nahi genuke.

Ilunabarrean, azkenik, Xabi Solano helduko zaigu. Urnietako jaietan, orohar, trikitixa-hotsaren falta sumatzen dugu, eta Solanok egin dezakeen ekarpena egokia iruditu zaigu. Instrumentu tra-

dizionala erabiliz, Solanok eduki asko uzartzen ditu pieza tradizionalak eta modernoak.

Dantzari ohiei deialdi berezia luzatu diezue.

I.G.: Makina bat urnietar igaro da gure taldetik, hogeitertan zehar. Une aproposa iruditu zaigu guztiak elkartzera, urteurrenaren aitzakiatan. Plaza dantzak zein bazkaria arrazoi politik izan daitezke aspaldiko lagunak berriro biltzeko, eta taldearen historia balioan jartzeko. Plazan erraz egiteko dantzak nagusitu ko dira: Ingurutxo, Zazpi jauzi, Lantzeko inauteriak, Txulalai...

Garazi Ramirez: Horretarako, entsegu irekiak antolatu ditugu Saroben, ostegunetan. Hiru izango dira guztira, irailaren 19 eta 26an, eta azken datorren urriaren 3an. Bazkaria, berriz, paella jatea izango da, 10 eurotan. Baserriarren eguna da, eta bertaratzten direnei baserriarrez jantzita azaltzeko gonbidapena luzatu diegu.

Hurrengo asteetan ere jarraipena izango dute zuek antolatutako kultur eskaintzak.

I.G.: 135 musika tresnen erakusketa irekiko da, azaroaren 11tik 17ra bitarte. Oiartzunen Juan Mari Beltranek sortu duen Soinuenea museoko piezak erakusgai jarriko dira. Erakusketak irauten duen bitartean, bisita gidatuak antolatuko dira, ikas-tetxeekin zein herritarrekin. Azaroan, berriz, zenbait musikagile ezagunek kontzertua eskainiko dute San Migel elizan. Alazne Maneroren omenezkoa izango da.

Alazne Manero pertsona eragilea izan duzue Aurrera Gure Ametsa taldean.

I.G.: Bai, taldearen sortzailetakoa izan zen, eta ez zen izan edonor. Taldearen arima izan zela esan daiteke. Ideien sortzailea, ekin-tzailea, eragilea, konstantzia handikoa..., Pasioz bizi zuen dantza taldearen dinamika, eta haren hutsunea izugarri nabaritzen ari gara.

G.R.: Maite zituen euskal kultura eta tradizioa. Etxekoek ondo ezagutzen genituen bere joan-etorriak, honekin eta harekin harremanak, bilerak..., Harrigarria da zenbat ordu eskaini zizkion dantza taldeari! Buruari etengabe eragiten ziona zen, dantzaren mesedetan.

Esate batera, halako batean ohartu zen txistularien eta dultzainen falta gure taldean,

eta bi instrumentuekin tematu zen, biak jotzen ikasi zuen arte. **Orain 20 urte, 1999an sortu zen dantza taldea. Ze behar ikusi zen orduan?**

I.G.: Euskal dantzen alderdi tradizionalari eusteko premia izuten zuten taldea osatu zuten sustatzaileek. Jantzitegia, soinua, dantza mota... euskal folklorea aberatsa izanagatik, plazan bizitasuna eman ezean, galtzen joan zitekeela pentsatzen zuten. Sortzaileek argi zeukaten betiko euskal dantzak plazara eraman behar direla, saiatu behar dela herrikoiak bihurtzen, eta herriko edonork plazan dantza egin dezan erraztasunak ipini. Alde horretatik, gure taldea ez da goi mailako teknika lortzeko temetzen; estilismoaren eta perfektzioaren gaiterik, euskal dantzak ahalik eta jende gehiagorengana iristea da gure helburua. Izan ere, ondo dago tradizioan inarritutako dantzeekin koreografia berriak sortzea, baina bide horrek ez du errazten Euskal Herriko edozein plazatan dantzari iaioak ez diren herritarrek dantza egitea.

G.R.: Horrexegatik ematen diegu hainbesteko garrantzia herri erromeriei eta Jalgi Plazara ekimenari. Filosofia horri tiraka, adin guztietako pertsonak plazara erakartzea bultzatzen dugu, lotsak eta erreparoko uxatuta; haurrak eta helduak uzaten elkarrekin dantzan ikustea baino gauza politagorik ez dago.

Zein da taldearen egungo egoera?

I.G.: Hiru taldek osatzen dute Aurrera Gure Ametsa, gaur egun: haurren taldea (7-10 urte bitartekoak), gazteen taldea (16-22 urte bitartekoak) eta gurasoen taldea. Haurren taldea dabil indartsuen, une honetan. Baina Euskal Herriko talde gehien antzera gabilta: dantzarien faltan. Eta batik bat, mutilak erakarri ezinik. Hauxe da errealtatea: txikitatik dantzan hasi diren gazteei, askotan, 15 urtera edo lehenago iritsi orduko lehen-tasunak aldatzen joaten zaizkie eta dantza uzten hasten dira. Argi dago gaurko gazteok makina bat eskaintza dauzkagula eskura, eta dantza ez da geure lehentasunetan sartzen. Urnietan herri kirolak, eta batik bat eskubaloiak eta futbolak indar handia dauka, eta hortik jotzen dute gazte gehienek. Kirola eta dantza, osagarri izan daitezke gazte baten aisialdi denboran, baina ez da horrela ikusten...

G.R.: Iruditzen zaigu baliabideak jarri beharko lirakeela Euskal Herriko gazteek euskal dantzen oinarri-oinarrizko pausoak txiki-txikitatik behintzat jakin zitzaten; arin-arin eta fandangoak plazan itxuraz egiteko moduan, behintzat.

Zein da taldearen dinamika urtean zehar?

Ekitaldiak nahiko definituta dauzkagu urtero, nahiz eta urteurrena dela eta aurtengoa betiko eskematik atera. San Migel jaien inguruan, urtean behin, estatuko dantza talde batekin trukaketa egiten dugu; gu haiengana joaten gara eta haiek etortzen direnean, Saroben eta San Juan plazan ekitaldi bana antolatzen dugu. Maiatzean Azkorteko elizan eta San Juan plazan erromeria bana antolatzen dugu, galtzen ari den erromerien usadioa hauspotzeko asmoz.

Irteera bereziak egiten ditugu, Euskal Herriko dantza taldeek gonbidatzen gaituzten alditan. **Zuek zergatik murgildu zineten dantzaren munduan? Zer eman dizue dantzak urte hauetan?**

G.R.: Nire bi ahizpa zaharragoak, Oihane eta Iratxe, txiki-txikitatik hasi ziren dantzan amarekin, eta neuk modu natural batean segi nuen hain bidea. Ez nuke jakingo azaltzen zergatik erabaki nuen hastea, eta zergatik jarraitu dudan. Dakidana da beti izan dudala gogoko. Saioen aurreko urduritasuna eta tentsioa, jendaurrean dantza egitea..., hitzez adieraz ezin daitezkeen sentsazio gozoak dira. Gainera, ikaragarria izaten da dantzarien artean sortzen den giroa, harreman estua... Oraindik ere, erromeria bat aurrean jarri orduko, gorputza mugimenduan jartzen zait, ezin dut ekidin.

I.G.: Nire kasuan, lagunek eraman ninduten dantzara, izan ere, zortzi bat urte nituela edo. eskolako lagunei entzuten nien nola joaten ziren asteburuetan ez dakit zein herrietara dantza egitera, eta nola disfrutatzen zuten. Haien atzetik joan nintzen, eta hartutako erabakiaz ez naiz batere damutu geroztik. Gero, nire atzetik Eli eta Olatz ahizpak arrimatu ziren dantzara, eta baita ama ere.

Guraso zein helduen irakaslea izatea egokitu izan zait eta oso bizipen aberatsa suertatu zait. Horrek giza harremanen arloan asko ikastea ahalbideratu dit.



HEMEROTEKA

ALAZNE MANERO ARAMBURU AURRERA GURE AMETSA | *2018KO MAIATZEAN AIURRI ASTEKARIAN ARGITARATU ZUEN IRITZIAREN BERRARGITALPENA

Azkorteko Gurutze Saindua

Udaberria iritsita, eta horrek dakarren poza eta bizitzaren berritzearekin, txango bat eginez Azkorteko Gurutze Sainduaren ermitarantz abiatu naiz. Kanpotik begiratuta zaindutako ermita dirudi, primeran kokatua, toki argi batean, urrutitik ikusgai, xume eta era berean ederra.

Duela urte askotatik urnietarra adopzioz, eta aitortzen dut tokiko istorioez erakarrita, ermitaren eta aldarean nagusitzen den kristoren irudi gotiko zoragarriaren historia gogorarazi nahiko nizuke. Urnietako Udal artxibategian informazio oso interesgarria aurki daiteke: Kristoren irudia eta bere ermita XIII. mendekoak dira. Irudia, Gurutze Sainduarena, Gipuzkoako arte gotikoaren irudirik onenetarikoa da. Lezoko Gurutze Sainduarenaren antzekoa.

Gerra, harrapaketa, izurri eta abarrez betetako bizitza gorabeheratsu bateko protagonista, Gurutze Sainduaren irudiak Urnieta, Astigarraga, Andoain, Hernani eta Lasarteko elizkoi-

laguntza jainkotiarra eta Aranotik (Nafarroa eta Frantziatik zetozenak) edo kostako bidetik zetozen Donejakue bideko erromesei laguntza eta babes adierazten die. XIX. mendean, 1837ko karlistadan, O'Donellen libereleak arpilatu eta erre egin zuten. Irudia Jose Maria Mitxelena (Erauso Txiki baserrikoa) berreskuratu eta urte luzez Andoainen gorde zuten. Gerora, Urnietako Santa Leokadia ermitara ekarri zuten. Suntsitutako ermitaren hondakinen ondoan egiten zen elizkizunera eta gurutze-bidera hainbat urtez joan ondoren, Gasteizko apezpikutzara berreraikitze baimena eskatzea erabaki zuten eliztarrek. Baimena lortu ondoren, gure herrian ohikoa izan den bezala, eliztarren diruarekin eta auzolanean berreraikia izan zen.

1969ko abenduaren 28an, gaur egun urnietar askok gogoratzen duen data, ermitaren zati bat erori egin zen ondoan dagoen harrobiko lanen ondorioz.

Berriz ere, Urnietako bizilagunen babesarekin,

oraingoan, Marcial Garmendiak (Beltran baserrikoa) eta Antonio tabernako Manuel Igerategik Kristoren irudia Santa Leokadia ermitara ekarri zuten. Donostiako apezpikutzako arte sakratu batzordeko kide Manuel Lekuonaren gidaritzapean berri zuten, eta diotenez, Miguel Olaskoagak zaharberitzearen gastu guztiak bere gain hartu zituen. Ermitatik kanpaia, sarrerako arku zorrotz zoragarria, ur bedeinkatuaren ontzia eta leiho borobila berreskuratu ahal izan ziren.

Ermita berria ondoko mendi-bizkar batean eraiki zen, Burundainen, eta horixe da nik une honetan ikusten dudana. Herritarren debozio eta lan nekazinari esker altxa zen berriro. Zerrenda luzea da: Banakakoen diru ekarpenak, aurrezki kutzak, zenbait dohaintza (Donostiako mendizale batzuen, adibidez) eta pertsona askoren kementa. Hala nola, Galdeano DVko Hernaniko berriemailea, Teresa Amuategi, Miguel de

Olaskoaga, Zunzunegi, Aita Iriondo, Aita Lasa, arkitektoak, zaharberritzaileak, Aita Salesiarrak eta Tardié jauna.

Etengabe aurrerantz doan gizarte honetan, norberaren onura guztien onuraren oso gainetik dagoenean, nire ustez, gure aurrekoek eta ez hain urrunekoek, 1970eko hamarkadan berreraikitze lanetan parte hartu zutenek emandako ereduarekin, bene-benetako eskertza merezi dute. Berezi, bertakoak eta kanpokoak garenok ermita honetaz eta Gurutze Saindu honetaz gozaten jarraitzea ahalbideratzeagatik.

Azkorteko Gurutze Sainduak ondo mereziak ditu gure maitasuna, debozioa eta gutxienez maiatzaren 3an eta ondorengo egunetan bisitaldia jasotzea. Jaia, gure folklorea merezi ditu. Eta zergatik ez, guk ere merezi dugu haren babes. Zain ditzagun gure kultura eta historia, zeinetan, dudarik gabe auzolana giltzarri izan den. Espero dut, guztion laguntzarekin, auzolanean, horrela izaten jarraitzea.



AIURRI

Hango eta hemengo dantzariekin harremana

Aurrera Gure Ametsa taldeak, sorreratik, hango eta hemengo dantza taldeekin trukaketa egiteko aukera hartu du. Urnietara gonbidatzen dute dantza talde bat, bertan bi saio eskaintzeko.

Eta, trukean, Aurrera Gure Ametsak bisitaldia itzultzen die. 2017an, esaterako, Castelloko El forcat taldearen bisitaldia jaso zuten Urnietan. Argazkian, bi taldeetako kideek Kontzejupean ateratako argazkia.



AIURRI

Erraldoiak eta buruhandiak

Haur eta gaztetxoentzat miresgarriak diren pertsonaiak jaien hasieran ikusteko aukera izango da. Zehazki, ostegun honetan arratsaldeko 18:30ean hasiko den kalejiran. Haurren egunean, astelehenean 17:00tan hasita, kalejira berria egingo dute.



AIURRI

Pou anaien bisitaldia Urnietara

Astelehen iluntzean Sarobeko pantailan Pou anaien maila gorenaz gozatzeko aukera izan zen. Ez hori bakarrik, euren adierazpenak zuzenean entzuteko aukera izan zuten. Mundu mailako kirolaren elitean

dauden bi anaiak Urnietara hurbildu baitziren, "Mallorca, Andreak eta Himalaia, mendi bertikalean murgilduta" ikus-entzunezkoa aurkeztera. Dozenaka lagun euren posterra sinatuta itzuli zen etxera.



AIURRI

Kantazaun, ostiral arratsaldean

Uztailen egin zuten aurkezpen ekitaldia, eta bertan adierazi zuten, hilean behin Urnietako kaleak euskal kantuz girotu nahi dituzte. Irailekoak Sanmielekin bat egingo du. Kantu kalejira 19:00tan abiatuko da, San Juan plazatik.



SANTA KRUZ ELKARTEA

Plater tiraketa, Santa Kruz elkarteak antolatuta

Santa Kruz elkarteak plater tiraketa lehiaketa antolatu zuen Arkalen. Giro ederrean igaro zen jardunaldia, lagunarteko bazkari

oparoarekin osatu zutena. Sailkapena (21 partaide):

- 1. Iraitz Oiarbide 48 plater.
- 2. Xabier Iurretgoiena 48 plater.

- 3. Unai Sarasola 41 plater.
- 4. Jose L. Toledotxiki 40 plater.
- 5. Lazaro Oiarbide 40 plater.
- 6. Juan Blanco 40 plater.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA